

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

728

2260/2019 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Ricardo González Pérez jauna izendatzen da aldi baterako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba Erakunde Sanitario Integratuko Dermatologiako zerbitzu buru, lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

73/2019 Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 21ekoa, deialdia egin zen lehiaketa bidez Dermatologiako zerbitzu buru-lanpostua betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabidea baloratu du, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Ricardo González Pérez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Dermatologiako zerbitzu buru.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean eta Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuan zein azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuan ezartzen denari jarraiki, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ricardo González Pérez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba Erakunde Sanitario Integratuko Dermatologiako zerbitzu buru izendatzea.

Bigarrena.– Aldi baterakoa izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko, ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hirugarren arau komunean xedatutakoarekin bat etorritik data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2019ko abenduaren 20a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, baldin eta ez bada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikulua hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere, kargutik kendu ahal izango dute, aldez aurretik kontrako espedientea egonez gero, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 16a.

Araba ESiko zuzendari gerentea,
JESÚS LARRAÑAGA GARITANO.